

## MUNDUKO KLIMAK

Gure planetan klima mota ugari dago, hiru gune nagusitan banatuta.


Hiru klima horiek :

Beroa

Epela

Hotza


Gune horietako bizidunen, landareen nahiz animalien, ezaugarriak baldintzatzen dituzte.



2. DOK. Lurreko zona klimatikoak.

Hori gertatzen da mundua biribila delako eta eguzki-izpiak ez direlako modu berean iristen leku guztietara:

- Gune berora heltzen diren eguzki-izpiak perpendikularki edo zuzenean iristen dira.
- Gune epeletara heltzen direnak inklinatuak iristen dira.



- Gune hotzera heltzen direnak oso modu makurrean iristen dira.

